

Bizitza erdigunean

7 estrategia pandemia-garaietan
beharrezko trantsizio sozioekonomikoari heltzeko
eta 31 proposamen
ekonomia sozial eta solidarioa bultzatzeko



Gure planeta oraindik jasaten ari den COVID-19 pandemiak agerian utzi du orain arte gure gizartearen eta munduaren funtzionamenduaren oinarri izandako zutabeak birpentsatzeko beharra. Biztanleriaren gehiengo zabalak partekatutako ondorioen artean honako hauek nabarmenduko genituzke: lehenetsuna eman behar zaiola jendea zaintzeari (zailtasun handienak duen jendea bereziki), gizarte-babeserako sistema publikoak indartzeari, gure eguneroko bizitzarako ezinbestekoak diren bertako zerbitzuak eta produktuak sustatzeari, gure gizartearen eta ekonomiaren jokamoldea aldatzeari eta ingurumenaren alorrean urgentziazkoak diren erronkei aurre egingo dion trantsizio ekologikoa bultzatzeari.

Eta behar horiek proposamen batean laburbildu beharko bagenu, **bizitza erdigunean** jarri behar dugula esango genuke. Ez da lelo soil bat, denon artean aurre egin beharreko erronka nagusia laburbiltzen du: bizitzaren iraunkortasuna bermatu, eta hori ahalbidetzen duten prozesu sozialak eta ingurumenekoak ziurtatu behar ditugu.

Eta erronka horri jarraikiz, premiazkoa dugu gure bizitza eta gure erakunde sozialak baldintzatzen dituzten eredu eta tresna ekonomikoak aldatzea. Ekonomiaren funtzionamendu kapitalista da aldiro-aldiro astintzen gaituzten krisien erantzule nagusia, hein handi batean, ez baita gai gizartearen beharrei erantzuteko eta, pandemia honetan ikusi dugun bezala, bateraezina baita pertsonen osasuna zein bizitza bermatzearekin. Sistema horrek larriagotu egiten du pobrezia, era guztietako desberdintasunak dakartza eta larrialdi ekologikoan sakontzen du.

Ekonomia birpentsatzeko premia daukagu, beraz. Birpentsatu egin behar ditugu haren funtzionamenduaren oinarriak, haren muga sozialak eta ingurumen alorrekoak, egungo ekonomia-eredua bultzatzen duten politika publikoak, herritarren jokamolde ekonomikoa... Eredu ekonomiko bidezko, solidario eta iraunkorrakoak lortzeko trantsizio-estrategiak garatu behar ditugu. Feminismoaren eta ekologiaren balio eta proposamenak biltzen dituzten estrategiak, ekonomia guztion onuraren mende, pertsona eta lurralde guztien ongizatearen mende, parekidetasunaren, gizarte-kohesioaren eta gure planetaren etorkizuneko iraunkortasunaren mende jartzen duten estrategiak.

Beste ikuspegi kritiko eta alternatibo batzuekin batera, ekonomia sozial eta solidarioak proposamen zehatzak eskaintzen ditu eredu ekonomiko berri bateranzko trantsizioa bultzatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoan, **REAS Euskadi (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea)** aspaldi ari da alternatiba zehatzak garatzen mundu osoko **77 enpresa eta erakunde** bazkiderekin batera. Denen artean **82 milioi euroko** diru-sarrerak dauzkate, **3.100etik gora langile** eta finantza-produktuen, energiaren, elikagaien eta kulturaren kontsumoko proiektu kooperatiboetan diharduten **milaka bazkide**. Errealitate horretatik abiatuta, proposamen bat egin nahi diegu alderdi politikoei, eragile sozial eta ekonomikoei eta herritar guztiei, **uztailaren 12an egitekoak diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundera begira.**



7 estrategia pandemia-garaian beharrezko trantsizio sozioekonomikoari heltzeko

- 1** Pertsona guztien giza eskubideak eta eskubide sozial eta ekonomikoak bermatzea eta lehentasuna ematea, beraz, pertsona guztientzat bizimodu duina bermatzen duten babes sozialeko oinarritzko sistemak elikatzen dituzten baliabide ekonomikoari eta ezinbesteko tresnei: osasunari, hezkuntzari, gizarte-zerbitzuei eta inklusioari, alegia.
- 2** Zaintzen antolaketa sozial berri bat bultzatzea, pertsona guztiek zainduak izateko duten eskubidea bermatuko duena, bai eta zainketa hori baldintza duinetan ematen dela ere, gizarte osoaren (erakunde publiko, gizarte-eragile, komunitate eta familien) erantzukizun partekatuarekin.
- 3** Trantsizio ekosozialerako estrategia bat garatzea, alor hauetan, besteak beste: energia-eraginkortasuna, mugikortasun iraunkorra, hondakinen kudeaketa ekologikoa, baliabideen kontsumoaren mugaketa, uraren kudeaketa publiko eta eraginkorra, biodibertsitatearen babesa eta lurraldearen kudeaketa iraunkorra.
- 4** Ekoizpen-sistemaren aldaketa bultzatzea bizitza jartzeko bere jarduera guztien erdigunean: onura publikoko eta guztion onerako ondasun eta zerbitzu publikoen ekoizpenaren, ekonomia zuzeneko eta zirkularren sustapenaren, ekoizpen- eta erreproduktzio-lanetan erantzukidetasunaren eta abarren bidez.
- 5** Tokian tokiko kate ekonomiko iraunkorrak bultzatzean eta baloratzean oinarritutako estrategia bat bultzatzea: bertako ekoizpenaren babesa, finantzaketa etiko eta arduratsua, merkaturatze-zirkuitu laburrak eta bertako merkataritza, kontsumo kritiko, kontziente eta eraldatzailea. Horren guztiaren bidez burujabetza bultzatzen da energiaren, elikagaien, teknologien eta kulturaren alorrean, besteak beste. Horrek ez du esan nahi, bestalde, planetako gainerako komunitateekin beharrezkoa den nazioarteko lankidetzaren eta elkartasuna bultzatu behar ez denik; alderantziz.
- 6** Ekonomia sozial eta solidarioa garatzeko apustu estrategikoa egitea eta ekimen sozialak guztion onerako bultzatzen dituen jarduera ekonomiak bultzatzea, bereziki, hala nola banka etikoa; energia berriztagarriak sortzeko, merkaturatzeko eta kontsumitzeko kooperatibak; nekazaritza ekologikoa eta elikadura-burujabetza sustatzeko elkarrekin ekimenak; bidezko merkataritza; hondakinen kudeaketa iraunkorra; esku-hartze soziala eta komunitatearen garapena; teknologia irekiak; komunikazio askea, etab.
- 7** Gobernantza-eredu berri, irekiagoa, banatua, deliberatiboa eta erantzukidea lortzeko bidean aurrera egitea, demokrazian sakonduz, gizarte gisa dauzkagun erronka konplexuei denon artean aurre egiteko, esparru publiko-sozialaren arteko lankidetzaren bidez eta ikuspegi integral batekin (administrazio publikoa / gizarte / enpresa / ikerketa-sistema / lurraldea).

31 proposamen ekonomia sozial eta solidarioa bultzatzeko



1. Erantzukidetasuna, berdintasuna eta bizitzaren iraunkortasuna bultzatzeko bizikidetzaren planak diseinatu eta garatzea eta diagnostiko eta ekintza-planak egitea bizitza sozial eta ekonomikoko arlo guztietarako.
2. Gertuko zerbitzuak (osasun, gizarte, hezkuntza eta mendekotasunaren alorrekoak) indartzea herritar guztien zainketa-beharrei erantzuteko, kalteberatasun-egoeretan arreta berezia jarriz eta komunitatearen eta gizarte-erakundeen parte-hartzearekin.
3. Zainketen sektoreko langileei babesa ematea, haien lana erregularizatu eta duinduz eta zerbitzuak ekonomia sozial eta solidarioaren enpresen bidez ematea sustatuz.
4. Enplegu inklusiborako euskal estrategia garatzea, bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden edo lanean nahiz gizartean diskriminazioa jasaten duten pertsonei lan-munduan eta gizartean txertatzen laguntzeko, ekonomia sozial eta solidarioaren ekimenen bidez bereziki.
5. Lurraldearen zaintza eta babesa sustatzea, lurra erabiltzeko eredu iraunkorrago eta ez espekulatiboetan oinarritutako plangintza-tresnen bidez, ekosistemen babesaren bidez, etab.
6. Bertako nekazaritza-jarduera berreskuratzea, langileak landa-eremura erakartzeko pizgarrien nahiz gazteak trebatzeko planen eta ekonomia sozial eta solidarioaren jardueren bidez, besteak beste.
7. Bertako produktu ekologikoen banaketa, merkaturatzea eta kontsumoa bultzatzeko politikak sustatzea elikadura-burujabetzaren irizpideetan oinarrituta, eta ekoizpen guztia herritarrengandik gertu dauden banaketa-guneetaraino eramanez.
8. Elikadura osasuntsu eta iraunkorra bultzatzeko politikak aplikatzea zerbitzu publiko guztietan: eskoletan, zahar-etxeetan, 0-2 urte bitarteko ikasgeletan, etxebizitza komunitarioetan, ospitaleetan, etab.
9. Ekonomia sozial eta solidarioaren arloan ekintzailatza lantzeko ibilbide, programa eta tresna espezifiko eta bereziak garatzea, fase guztiak (ekintzailatzaren aurrekoa eta bitartekoa) nahiz hartzaile espezifikoak (emakumeak, etorkinak, gazteak...) kontuan hartuz.
10. Ekoizpen-sistemaren antolakuntza eraldatzeko planak, diru-laguntzak eta inbertsioak sustatzea: merkataritzako eta kapitaleko enpresak ESSko enpresa bihurtzea, jarduera ekonomikoa funtsezko sektoreetara bideratzea, erantzukizun publikoko zerbitzuak ekonomia sozial eta solidarioaren formulen bidez ematea, etab.

11. Ekonomia sozial eta solidarioa sustatzeko erreferentziako ekipamenduak sortzea eta garatzea herritarrentzat eta herrietako eragile ekonomikoentzat: ekonomia sozial eta solidarioko enpresa-gune eta merkataritza-ganberak, ekintzailtza sozialeko eskolak eta programak, garapen kooperatiborako ateneo eta guneak...
12. Ekonomia sozial eta solidarioa finantzatzeko tresnak garatzea, bai ekintzailtza-faseetarako, bai ekimenak sendotzeko faserako: maileguak eta finantzaketa, hazi-kapitala, startup soziala, inpaktu sozialeko bonuak, etab.
13. Ekonomia sozial eta solidarioko enpresak sendotzeko laguntza-programak bultzatzea: sektore estrategikoak eta aukera-sektoreak identifikatzea (ekonomia zirkularra, zainketen ekonomia, ekonomia zuzena, energia, nekazaritzako elikagaiak, mugikortasuna...), egitura mutualistak eta bigarren mailakoak sortzea, etab.
14. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako estrategiak eta planak txertatzea ekonomia sozial eta solidarioa bultzatzeko politika publikoetan eta erakunde eta enpresetan bertan.
15. Beren ezaugarriak eta orientazioa direla eta denon onuran laguntzen duten gizarte-ekimeneko eta onura publikoko kooperatibak sustatzeko neurri espezifikoak garatzea.
16. Kooperatiba mistoak identifikatzen eta garatzen laguntzea, erakunde publikoen, ekonomia sozial eta solidarioko enpresen eta herritarren beraien parte-hartzearekin.
17. Finantzazio alternatiboko ekimen sozialeko tresnak garatzen laguntzea: banka etikoa, gertuko aurrezki- eta mailegu-tresnak, etab.
18. Energia berriztagarriak sortzeko, merkaturatzeko eta kontsumitzeko kooperatibak eta energiaren alorreko herritar-komunitateen sorkuntza bultzatzea.
19. Etxebizitzaren arloko herri-ekimenak sustatzea: cohousing, etxebizitza kolaboratiboa, etxebizitza kooperatiboak erabilera lagatzeko erregimenean, adinekoen bizikidetzako kooperatibak, etab.
20. Nekazaritza ekologikoaren eta elikadura-burujabetzaren irizpideen arabera funtzionatzen duten supermerkatu kooperatiboak, elkarteak eta kontsumo-taldeak sortzen eta bizirauten laguntzeko babes-neurriak garatzea.
21. Kulturarako eskubidea (bereziki, oinarriko eta gertuko kulturarako eskubidea) bermatzen duten ekimenak bultzatzea, komunitateko harremanen ardaztat hartuta, aniztasuna balioztatzen eta bestelako etorkizun bat irudikatzen laguntzen duten subjektibotasun eta erreferente sinboliko berriak sortuz.
22. Bidezko merkataritzako ekimenak bultzatzea, eredu hori sustatzen duten entitateen lana babestuz eta haien produktuen kontsumoa sustatuz, bai administrazio publikoen, bai erakunde pribatuen eta herritarren artean, oro har.
23. Komunitateari eta herritarren parte-hartzeari lotutako ekonomia-eredu berriak sustatzea: irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenak, denbora-bankuak, trukea, herrietako diruak, lankidetzako praktikak, crowdfunding soziala, etab.

24. Ekonomia sozial eta solidarioaren merkatu soziala sustatzea, irizpide etiko, ekologiko, feminista, demokratiko eta solidarioetan oinarritutako merkaturatze-zirkuituak lehenetsiz.
25. Kontsumo kritiko, kontziente eta eraldatzailea sustatzeko plan espezifikoak prestatu eta garatzea eta ekonomia sozial eta solidarioaren merkatu sozialeko zirkuituak sustatzea.
26. Ekonomia sozial eta solidarioko erakundeen eta haien eta gizartea eraldatzen laguntzen duten beste ekimen sozial eta ekonomiko batzuen arteko lankidetzak bultzatzeko programak sustatzea.
27. Herritarrak ekonomia sozial eta solidarioarekin zerikusia duten gaien inguruan sentsibilizatzeko programak sustatzea. Hezkuntzaren alorrean irakasleen prestakuntza sustatzea eta kontsumo arduratsua, ekintzailatza sozial eta solidarioa, finantza etikoak, bidezko merkataritza eta tankerako edukiak sartzea curriculumean.
28. Ekonomia sozial eta solidarioari buruzko ikerketak sustatzea, berrikuntza sozialarekin, enpresa-proiektuen eskalagarritasunarekin, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin, iraunkortasun ekonomikoarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten alorretan bereziki.
29. Erosketa publiko arduratsua sustatzea, irizpide sozialak eta ingurumenari buruzkoak nahiz klausula sozialak eta merkatu-erreserba txertatuz kontratazio-prozesuetan eta ekonomia sozial eta solidarioko enpresei parte hartzeko aukera emanez.
30. Ikuskaritza sozialeko prozesua instituzionalki errekonozitzea eta sustatzea, ekonomia sozial eta solidarioko produktu eta zerbitzuen berme gisa.
31. Ekonomia sozial eta solidarioa ordezkatzeko erakundeen parte-hartzea bultzatzea sustapen ekonomikoarekin, enpleguarekin, gizarte-politikekin... zerikusia duten esparru instituzionaletan (aholku-kontseiluetan, Lanbide eta antzeko erakunde publikoetako zuzendaritza-batzordeetan, besteak beste).



Venezuela plaza, 1, 2. ezk.-ezk. · 48001 Bilbo · Tel.: 944 160 566 · 651 700 983
reaseuskadi@reaseuskadi.net · @REASEuskadi
www.economiasolidaria.org/reaseuskadi